



2001EKO URRIAREN 4KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bateko urriaren lauan, iluntzeko zapiretan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estensoro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Irantzu Amundarain Irizar eta Jon Agirre Garmendia.

Urko Irastortza Aldanondo eta Jose Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Jose Antonio Dopazo Martin zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Joseba Hernandez Madinabeitia Jauna bertaratu da baita ere.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- JOSEBA HERNANDEZ MADINABEITIAREN ZINEGOTZI KARGU HARTZEA.-

Euskal Herritarrok talde politikoko Julio Ibañez Urteagaren zinegotzi kargua uztea zela eta ordezkapena egiteko prozesua martxan jarri zen eta honen ondorioz Hautesle Batzorde Zentraletik zinegotzi berriaren kredentzialak jaso dira. Kredentzial hauen arabera Euskal Herritarrokeko JOSEBA HERNANDEZ MADINABEITIA Jauna izan da zinegotzi izendatua eta bera bertan dagoelarik karguaren posesio ematen zaio honek onartzen duelarik.

II.- AURREKO AKTA.-

Ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2001eko ekainaren 28an egindako ohiko eta irailaren 11n egindako ez-ohiko bilkuretako aktak.

2001eko ekainaren 28ko aktan, AA.SS.etako 1 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren aldaketa puntualaren behin behineko onarpenaren akordioaren inguruan, zera esan behar da: akats material bat dela medio eta bere zuzenketarako, ondoko hau jartzen duen lekuan:

“Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere sei partaideen aldeko botuarekin, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuz, honako erabakitak hartzen ditu:

1.- Jose Angel Larrañaga Sasianbarrena Jaunak egindako alegazioari ezetza ematea, akordio honen aurrekinetan emandako arrazoiengatik.

2.- 1 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren aldaketa puntual honi behin behineko onarpena ematea.

...///...

...///...

3.- Dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honen behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan”

beste honako hau jarri behar duela:

“Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere sei partaideen aldeko botuarekin, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuz, honako erabakitak hartzen ditu:

1.- Jose Angel Larrañaga Sasianbarrena Jaunak egindako alegazioaren lehen apartaduari ezetza ematea, B.E.B.E-ren aldaketa ez delako erabilera hori baimentzeko erabilgailu egokia eta berau planeamendu orokorraren aldaketa baten bidez egin beharko delako.” jarri behar du.

2.- Jose Angel Larrañaga Sasianbarrena Jaunak egindako alegazioaren bigarren apartaduari ezetza ematea, akordio honen aurrekinetan emandako arrazoiengatik.

3.- 1 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren aldaketa puntual honi behin behineko onarpena ematea.

4.- Dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honen behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan.”

Puntualizazio hau egin ondoren, aktak, gainontzean, idatzita dauden moduan onartzen dira.

III.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- 16 H.A.KO BARNE ERALDAKUNTZARAKO BERARIAZKO EGITASMOAREN ALDAKETA.-

Udal honek Gipuzkoako Foru Diputaziora bidali zuen, honek behin betiko onarpenari buruz ebatzi zezan, 16 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren aldaketa. Aldaketa honen helburuak Ezarri, S.A. enpresa bertan koka dadin ahalbidetzea eta bestalde lehendik dauden aprobetxamenduak finkatu eta enpresen beharretara egokitutako erdisolairuak baimentzea dira.

Gipuzkoako Foru Diputazioaren Diputatu Kontseiluak, 2001eko irailaren 18an egindako batzarraldian, Lazkaoko 16 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren Aldaketaren behin betiko onarpena etenda uztea erabaki zuen, ebazpen horretan zerrendatzen diren arrazoiak direla medio.

Hau honela, 16 H.A.ko B.E.B.E-ren Aldaketaren egilea den Roberto Gartzia Azpiri ar-

...///...



...///...

kitektoari Gipuzkoako Foru Diputazioak, dokumentuari behin betiko onarpena ez emateko bere ebazpenean azaltzen dituen eragozpenak konpontzera zuzendutako dokumentua egin zezala eskatu zitzaion.

Dokumentu hau, "16 Hiri Areako –Zubierreka- Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren Aldaketaren aurrean Diputatuen Kontseiluaren akordioari buruzko txostena" izenarekin, 2001eko iraileko data daramana eta Roberto Garcia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek izenpetuta, Udal honetan aurkeztua izan da eta orain, Osoko Bilkuraren aurrera aurkezten da, bere onarpenerako.

Dokumentua aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere zazpi partaideen aldeko botuarekin, eta beraz, bere partaideen legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- "16 Hiri Areako –Zubierreka- Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren Aldaketaren aurrean Diputatuen Kontseiluaren akordioari buruzko txostena" dokumentua onartzea.

2.- Domukentu hau Gipuzkoako Foru Diputaziora birdaltzea, 2001eko irailaren 18an etenda utzi zuen 16 Hirigintz Areako Barne Eraldakuntzarako Berariazko Egitasmoaren Aldaketaren behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan.

V.- 16 H.A.KO 1 BURUTZE UNITATEKO XEHETASUN AZTERKETAREN ALDAKETA.-

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 16 Hirigintz Areako 01 Burutze Unitateko –Zubierreka Industrialdean- Xehetasun Azterketaren aldaketari 2001eko maiatzaren 25eko Alkatezako Ebazpen bidez eman zitzaion haserako onarpena. Xehetasun Azterketa hau Lazkao Industria Lurra, S.A.k aurkeztu du, Jose Antonio Larrañaga Barrera injeneru industrialak idatzitakoa da eta 2001eko otsaileko data darama. Xehetasun Azterketa onartu zenetik, partzelen salmentak azterketa horretako dokumentazio grafikoan azaltzen den forma fisikoa aldatu egin dute eta oraingo Aldaketaren helburua gaur egungo jabetzaren egitura jasotzea da.

Xehetasun Azterketa hau jendaurrean hamabost eguneko denboraldian eduki da eta epe horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela, Osoko Bilkurak, bertaratutako partaideen aho batez, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 16 Hirigintz Areako 01 Burutze Unitateko –Zubierreka Industrialdean- Xehetasun Azterketa hau behin betikoz onartzea erabakitzen du.

VI.- 5 H.A.KO 6 SISTEMA OROKORREKO ESPALOA EGITEN JOSE ANGEL GARMENDIA, BEGOÑA BEGIRISTAIN ETA FERNANDO AGUADORI OKUPATU ZAIZKIEN BENETAKO METROAK.-

Arau Subsidiarioetako 5 H.A. garatu gabe egonik, 5 H.a.ko 6 Sistema Orokorreko espaloia egiteko, okupatu beharreko lursailen jabeekin hitzarmen bat izenpetu zen. Hitzarmen horretan bakoitzari okupatu behar zitzaizkion metro karratuen aurrikuspena egiten zen.

Orain, espaloia egina dagoenean, udal teknikariek benetan okupatutako metroen neurketa egin eta egindako txostenaren arabera ondorioak honako hauek dira:

...///...

...///...

- Jose Angel Garmendia	129,62 m ²
- Begoña Begiristain	94,77 m ²
- Fernando Aguado	76,97 m ²

Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuz, 5 H.A.ko 6 Sistema Orokorreko espaloia egiten okupatutako lursailei buruz, neurketa hau ontzat ematen du eta beraz lurjabe bakoitzari okupatutako metro karratuak goian azaltzen direnak direla aitortzen du.

VII.- SAN PRUDENTZIO IKASTETXEA ERAIKINAREN DESAFEKTAZIOA.-

San Prudentzio Ikastetxeak okupatzen zuen eraikina desafektatzeko hasierako onarpena 2001eko martxoaren 21eko batzarraldian eman zion Osoko Bilkura honek.

Ondoren Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatu zitzaion desafektazio honetarako baimena eman zezan.

Honek, gai honi buruz emandako 2001eko ekainaren 4ko Agindu bidez, eraikin honetako gela bat, Beasaingo H.H.I.k (Helduentzako Heziketarako Ikastetxea) erabiltzen duena (ikastetxeko kontserjearen gela), desafektatzeko baimenik ez ematea eta gainontzeko eraikina desafektatzeko baimena ematea erabaki zuen.

Desafektazio espediente hau jendaurreko erakustaldian jarri zen hilabete bateko denboraldian, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2001eko ekainaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik, eta epe horretan ez zen inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Guzti hau honela, Osoko Bilkurak, berartutako bere partaide guztien aldeko botuz, Beasaingo H.H.I.k erabiltzen duen gela izan ezik gainontzeko San Prudentzio ikastetxea eraikina desafektatzea erabakitzen du.

VIII.- 1 H.A.KO 12 SISTEMA OROKORRA (EUSKADI ENPARANTZA) URBANIZATZEKO LUR GUZTIAK PUBLIKO IZAN DAITEZEN OKUPATZEA BEHARREZKOAK DIREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.-

Udal Osoko Bilkurak, 1999ko urtarrilaren 28an egindako batzarraldian, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 Hirigintz Areako 12 Sistema Orokorra (Euskadi Enparantza) urbanizatzeko lur guztiak publiko izan daitezen okupatzea beharrezkoak diren ondasun eta eskubideen zerrenda haserako izaeraz onartzea erabaki zuen.

Ondasun eta eskubideen zerrenda hau jendaurrean eduki eta interesatuei banakako jakinarazpena egin zaielarik, horretarako irekitako denboraldian ez da inolako erreklamazio edo obserbaziorik aurkeztu.

Ukitutako lurjabeekin izandako elkarrizketetan, 4 zbk.dun lursailaren jabeekin adostasunera iritsi ahal izan da eta lursail hau lur trukaketa baten bidez eskuratu du Udalak.

...///...



...///...

Bestalde Jabetza Erregistrotik jasotako informazioaren arabera, 1 zbk.dun finkaren titularitatea aldatuta dagoela ikusi ahal izan da, benetako jabeak haserako onarpenean azaltzen direnak ez baizik Maria Jose Larrañaga Sasiambarrena, Jose Angel Larrañaga Sasiambarrena, Jose Maria Echeverria Lasa eta Milagros Redrado Lapeña direlarik.

Hau honela Osoko Bilkurak, aho batez, zera erabakitzen du:

1.- Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 Hirigintz Areako 12 Sistema Orokorra (Euskadi Enparantza) urbanizatzeko lur guztiak publiko izan daitezen okupatzea beharrezkoak diren ondasun eta eskubideen zerrenda behin betikoz onartzea.

2.- Akordio honen aurrekinetan adierazitako zirkunstantziak direla eta, Udalak esku-ratzeke dauzkan finkak eta hauen titularrak honako hauek direla:

UKITUTAKO LURJABE ETA LURSAILEN ZERRENDA.-

1 Zbk.dun finka.-

Higiezinaren deskripzioa: Lorenzonea edo Laurenzanea Etxea finkaren zatia den paretez itxi-tako baratza.

Jabeak: Maria Jose Larrañaga Sasiambarrena, Jose Angel Larrañaga Sasiambarrena, Jose Maria Echeverria Lasa eta Milagros Redrado Lapeña.

* Azalera: 205 m²

* Erregistro datuak:

- Tomoa: 1.611
- Liburua: 76
- Folioa: 214
- Finka: 123
- Inskripzioa: 18.

2 Zbk.dun finka.-

Higiezinaren deskripzioa: Ataisuarena edo Maizuarena Etxearen zatia izan zen baratza.

Jabeak: Cirila Larrañaga Areso A.ren Oinordekoak.

* Azalera: 400 m²

* Erregistro datuak:

- Tomoa: 1.611
- Liburua: 76
- Folioa: 217
- Finka: 1.367
- Inskripzioa: 4.

...///...

...///...

3 Zbk.dun finka.-

Higiezinaren deskripzioa: Lazkaoko Kontzejuko Plazaren ondoan kokatutakoa eta harri-hormazko paretez inguratutako baratza baten ifar aldearen erdia.

Iabeak: Cirila Larrañaga Areso A.ren Oinordekoak.

* Azalera: 276 m²

* Erregistro datuak:

- Tomoa: 1.611
- Liburua: 76
- Folioa: 220
- Finka: 895
- Inskripzioa: 7.

Une honetan Jose Antonio Dopazo Martin zinegotzia bertaratu da.

IX.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako 2001eko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko 2 Zbk.dun Kreditu-Aldaketarako Espedientea irakurri ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri da. Honek aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola adierazten du, zehazki Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 34. artikuluan eta Toki Entitateen Aurrekontu-Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei egokitzen zaiela.

Era berean, Haziendako Batzorde Informatzaileak formulatutako aldeko txostena eta onespren proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu gehigarri bidezko kreditu aldaketa honetan barneratzen diren partiden azalpena egiten du. Baita ere alkatetzaz onartutako kreditu gaikuntza bidezko 1 zbk.dun kreditu aldaketaren xehetasunak ematen ditu.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du aurrekontua ez zutela onartu eta ondorioz hau ere ez dutela onartuko.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurrekontuaren aurka bozkatu zuela eta ez dutela aurrekontu politikan aipatzeko moduko aldaketarik nabarmendu eta beraz aurka botatuko duela.

Botutara jarri eta, aldeko 5 botuz (EAJ, EA) eta aurkako 4 botuz (EH, PSE-EE), honako hau

...///...



...///...

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honetako aribideko ekitaldiko Aurrekontua afektatzen duen Kreditu Gehigarri-en bidez egin beharreko 2 Zbk.dun Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, formulatutako proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU-GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izendapena	IGOERAK
IV	Transferentzia arruntak	1.000.817,-
VI	Inbertsio errealak	41.726.067,-
VII	Kapital transferentziak	2.250.000,-
IGOERAK GUZTIRA ...		44.976.884,-

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izendapena	Zenbatekoa
VIII	Diruzaintzako Gerakina	44.976.884,-
GUZTIRA		44.976.884,-

Bigarren.- Jendaurreko informazioarako tramitean jar bedi, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

X.- OROBIONEKO BIRRERAIKITZE LANEN 9. ZERTIFIKAZIOA.-

Orobione etxearen birrerakitze lanen obra zuzendaritza daramaten Juan Jose Garmendia Soria eta Roberto Gartzia Azpiri arkitektoek, lanen 9. zertifikazioa aurkeztu dute.

Zertifikazio honen zenbatekoa LAU MILIOI SEIREHUN ETA HAMABI MILA HIRUEHUN ETA HAMAR (4.612.310,-) pesetatakoa da (27.720,54 €).

Udal arkitekto eta arkitekto teknikoak egindako txostenean zertifikazio honetan proiektuarekiko egon diren aldeak, hauen zergatia azaltzen dute eta eman diren prezio desbideraketak onargarriak direla adieraziz, 9. zertifikazio hau ontzat eman daitekela esaten dute.

...///...



USURBE Inprimategia - Donostia

...///...

Proiektuarekiko egondako aldeak proiektuaren aurrekontuarekiko sei ehun eta laurogeita hamaika mila ehun eta hirurogeita sei (681.166,-) pesetatako (4.093,89 €) gehikuntza suposatzen du.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du aurka bozkatuko dutela ze beraiek onartu zuten proiektuko aurrekontua erabat eta behin eta berriro aldatzen ari dela zertifikazioetan.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten dio egin diren aldaketak Hirigintza Batzordearen oniritziarekin egin direla. Gaineratzen du aurrekontua aurrikuspen bat dela eta hobekuntzak egitea ondo dagoela.

Agirre zinegotziak (EH) esaten du aldaketak akatsen ondorio izan direnean ere inoiz ez direla atzera bota.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du proiektua egiterakoan zorrotasun handiagoa eskatzearen kalterik gabe, iruditzen zaiola zertifikazio hau onar daitekela. Bestalde, eta aurreko puntuan esatea ahaztu egin zaiola eta, esaten du aurrekontua egiteko teknika kritikatzeko duela baita ere, kreditu aldaketa hauek aurrekontua egiteko garaian aurrikuspen eza adierazten dutelako.

Alkateak, azkena esan duen honi buruz, erantzuten dio kreditu aldaketa guztietan gauza bera esaten duela eta lehen esan duenean berresten dela eta bakoitzak egiten duen lana hor dagoela.

Hau honela, gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 boru (EAJ, EA, PSE-EE) eta aurkako 3 botuz (EH), zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

XI.- ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN LANEN ESLEIPENA.-

Etkez-Etxeko Laguntza Zerbitzuko lanen kontratua prozedura arrunt eta lehiaketa bidez esleitzeko izapidatutako espedientearen egoera prozedimentala ikusirik.

Guztira abantaila gehien eskeintzen duena 3 zbk.dun eskeintza izateagatik, Kontratazio Mahaiak kontratua Gizaintza, S.L.ri esleitzea proposatzen duela kontutan hartuta.

Hazienda Batzordeak esleipenaren aldeko diktamena luzatu zuela kontutan izanda.

Gaia Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak informatua izan da baita ere.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du beraiek zerbitzua emateko zeharkako kudeaketa sistema ez zutela onartu eta ondorioz orain abstenitu ebgingo direla.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) aurkeztu diren eskeintzen inguruko zenbait argitasun eskatzen ditu eta Alkateak erantzun egiten dio. Gaineratzen du Dopazo zinegotziak bera ados dagoela zeharkako kudeaketa bidez esleitzearekin baina daukan informazioarekin esleipena noren alde egiteari buruz ez daukala erizpide garbirik eta abstenitu egingo dela.

Guzti hau honela, Herri Administrazioen Kontratazio Legearen Bategindako Legearen

...///...



...///...

82 eta 90 artikulua ikusirik, Udal Osoko Bilkurak, aldeko 5 botu (EA), EA), aurkako boturik gabe eta 4 abstentzioz (EH, PSE-EE), honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Lizitazio egintza baliozkoa aitortzea.
- 2.- Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzuako lanen lehiaketa Gizaintza, S.L.ri esleitzea, Udalarentzat eskeintzarik abantailatsuaren egilea izategatik.
- 3.- Esleitzaila errekeritzea, akordio honen jakinarazpenetik 15 egunetako epean behin betiko fiantza jar dezan.

XII.- KIROL ZERBITZUEN KONTZESIOAREN LUZAPENA.-

Udal honek Goierriko Kirol Teknikoak enpresari eman zion kontzesioan kirol zerbitzuen ematea, bi urterako. Kontratazioko baldintza plegu administratiboan kontratua beste hiru urtez luzagarria dela aurriztatu da eta bi urtetako epea orain amaitzen denez, Kirol zinegotziak, kontratua beste hiru urtez luzatzea proposatzen du.

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du proposamenaren aurka bozkatuko dutela esleitzerakoan ere aurka bozkatu zutelako.

Agirre zinegotziak (EH) esaten du astebukaeratako zerbitzuarena ere beraiei eman zitzaiela inolako lehiaketarik gabe eta orain hori ere luzatu egiten zaiela.

Sarriegi zinegotziak (EA) erantzuten dio galdetuz ea zerbitzu berri bat sortzen den bakoitzean lehiaketa egin behar al den,

Agirre zinegotziak erantzuten dio berak ez duela nola egin behar litzatekeenari buruz ezer esan baizik eta nola egin den esan duela. Gaineratzen du bigarren balorazio bat egin nahi lukeela eta zerbitzua ondo ematen ari ote den ere baloratu al den galdetzen du.

Alkateak esaten du zerbitzu batetan aldaketa bat dagoenean lehen ematen ari denaren arabera baldintza berak aplikatuta ematera baldintzatuta lehengoa ematen ari den enpresario berari ematen zaiola baita ere eta bestalde zerbitzua ondo ematen ari dela baieztatu zaielako planteatzen dela luzapena.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) zenbait argitasun eskatzen ditu ematen den zerbitzuaren kalitatearen inguruan eta Sarriegi zinegotziak, kiroltako zinegotzi arduradun gisa erantzun egiten dio.

Dopazo zinegotziak esaten du bere egunean kontzesioa onartu egin zutela eta aurkako inolako ziorik egon ezean eta Udaleko alde politiko nahiz teknikitik dagoen baloraketa ona baldin bada berak ere onartu egingo duela luzapena.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ, EA, PSE-EE) eta aurkako 3 botuz (EH) Udal honek Goierriko Kirol Zerbitzuak enpresarekin daukan kirol zerbitzuen kontzesioa beste hiru urtez luzatzea erabakitzen du.

...///...

...///...

XIII.- KIROLDEGIKO TABERNA USTIAPENAREN KONTZESIOAREN LUZAPENA.-

Udal honek Kontxi Pedrosa Pellejerori eman zion kontzesioan Kiroldegiko Tabernaren ustiakuntza, bi urterako. Kontratazioko baldintza plegu administratiboan kontratua beste hiru urtez luzagarria dela aurrikusten da eta bi urtetako epea orain amaitzen denez, Kirol zinegotziak, kontratua beste hiru urtez luzatzea proposatzen du.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuz, Udal honek Kontxi Pedrosa Pellejerorekin Kiroldegiko Tabernaren ustiaketarako daukan kontzesioa beste hiru urtez luzatzea erabakitzen du.

XIV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Amundarain zinegotziak (EH) esaten du pasa den uda honetan Xabier Unanue atxilotua izan zela eta beraiek ez dutela gai honen inguruan moziorik aurkeztu baina Alkateari atxiloteta hau salatzeko konpromezua eskatzen diotela eta hau horrela ez bada mozioa aurkeztuko dutela gai honen inguruan.

Alkateak erantzuten dio aztertuko dutela eskaria eta erantzungo dietela hurrengo Osoko Bilkura baino lehen.

Estensoro zinegotziak, Lazkaoko Udalak Enirio-Aralar Mankomunitatean duen ordezkari gisa, Mankomunitatean artzain txaboletara pistak egiteko eskariaren inguruan egoera nola dagoenaren berri ematen du.

Alkateak esaten du urriaren 11n Osakidetza anbulategi berriaren inaugurazioa egingo dela, eta Osakidetzatik Udaletik zenbat ordezkari joango diren jakin nahi dutela.

Agirre zinegotziak (EH) baserrietako batzordea biltzen jarraitzen al duen galdetzen du.

Estensoro zinegotziak baietz erantzuten dio.

XV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

